

238. ZENBAKIA-AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA-2021EKO MAIATZA

UZTARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

LIBE ARANBURU

ESPEROTAKO ITZULERA

INNOVA

AZPEITIA

KORTZ-KLINIKA



Jose Artetxe 5 • 943-025955

**MILAR
LARRAMENDI**

Etzetresna elektrikoak

**Cooking
& Chef**
BUKALDE GUNEA



**AZKEN
ALEAK**

**dyson v7
motorhead**
XURGAGAILUA

Lehen 349 €
Orain 299 €

dyson ETXEAK DITU
MERKATUKO XURGATZAILE ONENAK,
eta **MILAR LARRAMENDI**
BAKARRIK AURKITUKO
DITUZU

ZORIONAK
URREA GARA!
TSB
IRAURGI
ELKARREKIN
TXAPELDUN

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeke altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 • AZKOITIA • ☎ 943-85 21 10 • www.biyona.net



UZTARRIA 238

2021EKO MAIATZA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ANARTZ IZAGIRRE



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Mailo Oiarzabal, *Esperientziadunak.*
- 6 **Zu zeu** Itziar Varela, animalien erreskate zentro bateko boluntarioa.
- 8 **Nire leihotik** Alaitz Ruiz, *Loratu.*
- 10 **Iritziak** Irati Aranguren, *Hilerokoaz,* Hiromi Yoshida, *Eskolarik gabe.*
- 12 **Elkarrizketa** Libe Aranburu aktorea.
- 18 **Erreportajea** Arrantza.
- 24 **Lehiaketa**
- 26 **Erretratua** Maider Etxezabal sokatiralaria.
- 30 **Plazan bazan**
- 33 **Iritzia** Oier Etxeberria, *Aldapan gora.*
- 34 **Atzera begira** Arantxa haur arropa denda.
- 39 **Iritzia** Paola Moto, *Lore sortak edo zeozer...*
- 40 **Iritzi grafikoa** Itziar Aranguren.
- 42 **Klik!** Udaberriko loreak.
- 46 **Iritzia** Janire Alkorta, *EPA, APA, IPA;* Felipe Murillo, *"Gol en el campo..."*

UZTARRIA

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@ukt.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:
Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea
Mailo Oiarzabal
Anartz Izagirre
Maialen Etxaniz
Ihintza Elustondoo

Diseinu arduraduna:
Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna:
Anjel Sarasua
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Alaitz Ruiz
Irati Aranguren
Hiromi Yoshida

Itziar Aranguren
Nora Alberdi
Olatz Alkorta
Oier Etxeberria
Paola Moto
Janire Alkorta
Felipe Murillo
Aitziber Salegi

Inprimategia:
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS- 860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2500 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



azpeitiko udala
denon artean

uztarrria

UKT AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dermatika
kosmetika naturala



Hiale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA
Urbilatu 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

KIRURI



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 5808
Faxa.: 943 15 03 62



BOSCH
Service
Car Service

AIZPURU
autoak



Tel. 943 81 23 28
Fax. 943 81 22 81

aizpuru@aizpuru.net
www.aizpuru.net

Arretza 17, 20730 AZPEITIA

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urko: 618 96 49 95 / Jan: 649 12 02 71
ikazargi@ika.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea
20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Iuba
ehelbularitza

Anakularitza
libroa
lehenetako
konizaketa

Gestioi lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inmobiliarioa

Tel: 943 817 329 ... Faxa: 943 817 379
Egokian saltea: 49 - Iuba.com/whatsapp/



I N N O V A
H O R T Z K L I N I K A

**GURE TALDEKO KIDE IZAN NAHI?
HIGIENISTA EDO LAGUNTZAILE BATEN BILA ARI GARA.**

**BIDALIGUZU CURRICULUMA
innovaazpeitia@gmail.com**

Esperientziadunak



MAILLO OIARZABAL

Esperientziadunak". Horrela izendatu gintuen aspalditxo lankide batek gure kazetari lantaldeko bi zaharrenak. Kariño askorekin, badakit, eta horixe ez esateagatik, edo xuabe esan nahian: koskarekin garella zaharrenak, alegia. Izan ere, gu, esperientziadunak, mende erdia betetzetik oso gertu gaude, eta atzetik hurbilen duguna 40 urtetik nahikoa urrun dabil oraindik; eta gainerako guztiak, 30etik behera, oso aise behera, gainera, gehienak.

Hemen gabilta, zaharrak, gazteak eta itxuragabe gazteak, lan berean eta lan hori egiteko baliabide berberak erabiliz: ordenagailuak, programak, sakelako telefonoak, kamerak... Itxuragabe gazte horientzat ez dago nobedaderik, horrelakoekin ondo trebatuta iritsi direlako lan mundura. Aldiz, gu, esperientziadunak, tresna eta tramankulu berriak ezagutzen eta menderatzen (edo) joan gara urteen poderioz. Zer erremedio, eta eskerrak. Ez dira gutxi aldatu gauzak gu lanean hasi ginenetik. Interneterako konexio txukuna ezinbesteko tresna bihurtu da gure lanerako, beste askotarako bezalaxe. Eta telefono mugikorra, zer esanik ez: salbazio eta kate -hitzaren zentzu anitzetan-, lanean eta bestela. Konexio horiek eteten badira, akabo, ia ezer egin ezinda gelditzen gara; gauza ederra baita teknologia, huts egiten duen arte.

Teknologiaren garapenak eta aurrerabideek urte gutxitan lan mundura ez ezik gizarte osora zer-nolako aldaketak ekarri dituzten, horixe darabilkit buruan azken asteetan, COVID-19aren kontrako txertaketa kanpainaren haritik. Gure lantaldeko itxuragabe gazteetako batek belaunaldien arteko arrakala digitalaz idatzi zuen erreportajea aldizkari honen apirileko zenbakian, eta arrakala horren adibide gordina izan da Osakidetzak 70 eta 79 urte artekoiei txertoa jartzeko txandak emateko aukeratu duen bidea. Zer da, eta baten bati ideia eraginkorrena iruditu zaio adin tarte horretako herritar guztiei mugikorretara SMS mezuak bidaltzea, eta mezu horietan txandak Interneten aukeratzeko esteka bat gehitzea. SMSak, SMS bat zer den ez dakiten milaka laguni. Txanda hartzeko Interneten sartu beharra, Interneten inoiz nabigatu ez dutenek. Eta, noski, mezu horien hartzaile guztiek mugikor bat eskura dutela zalantza izpirik egin gabe. Txertoa jartzea noiz tokatuko zain-zain dauden asko eta asko kirioak dantzan eta txanda hartu ezinda, osasun zentroetara joan-etorrian, informazio eta laguntza eske, azken urtebete pasa honetan pairatutako ezinegonari beste bat gehituta. Dena ondo eta beti gure on beharrez egiten duten kudeatzaileen beste arrakasta bat.

Badakit 70 eta 79 urte artekoetan badirela teknologia berriekin ederki moldatzen ikasi dutenak ere, baina gutxiengoa dira. Lanean esperientziadunen multzo txiki-esklusiboan dagoen honentzat azken bizpahiru hamarkadetako bilakaera teknologikoa harrigarria izan bada, zer pentsatuko ote dute gerraondo betean jaio ziren horiek Interneti eta sakelakoari kateatuta bizi garenotaz. Kutxazainetara arrastaka eraman dituzte edo nahi dituzte aurrez aurreko zerbitzua akabatu nahi duten bankuek; eta, orain, oinarritzko zerbitzu publikoekin hartu-emanak antzeko bidetik joan daitezkeela ikusi dute. Zaharrenek ikusi dute, eta bidean goazenok ere bai, momentuz arrakala digitalaren alde 'onean' gaudela sentitu arren. ■■■

**BATEN BATI IDEIA
ERAGINKORRENA
IRUDITU ZAIO
70-79 URTEKOEI SMS
MEZUAK BIDALTZEA**

Itziar Varela: "Ez gara ohartzeko, baina animalien trafiko ilegal handia dago"

TESTUA: MAIALEN ETXANIZ

ARGAZKIA: UTZITAKOIA

Biologia ikasketak egin zituen Itziar Varelak (Azpeitia, 1995), eta duela sei hilabetetik Alacanteko (Herrialde Katalanak) Primadomus animalien erreskate zentroan ari da lanean, boluntario gisa. Zentro horretan animaliak babestea dute xede, eta bizitzen ari den esperientzia "ikaragarria" ari da izaten azpeitiarrarentzat.

Nolatan iritsi zinen animalientzako Primadomus zentroa?

Unibertsitatean Biologia ikasketak egiten ari nintzela jakin nuen animalien erreskate zentroetan boluntariotzak egiteko aukerak eskaintzen zituztela, eta 2016an izan nintzen horrelako zentro batean lehen aldiz; Madrilgo primateen erreskate zentroan, hain zuzen ere. Han hitz egin zidaten aurreneko Primadomus zentroaz. Orduz geroztik, nire helburua hona iristea zen, oso zentro ona baita. Primadomusera iritsi aurretik Eskoziako zentro batean ere izan nintzen, fauna basatiarekin lanean.

Zein da zentroaren helburu nagusia?

Zentroak bi helburu ditu: batetik, erreskatatzen diren animalien errehabilitazioa; eta, bestetik, legeak aldatzeko edo lege berriak ezartzeko salaketa kanpainak martxan jartzea, Espainiako Estatuari nahiz Europako Batasunari presioa egiteko. Lege batzuk aldatu edo beste arau batzuk sortu behar direla aldarrikatzen du, besteak beste. Horrez gain, animalien salerosketa ilegala salatzea du xede, eta horren kontrako legeak indartzea ere eskatzen du. Martxan dagoen beste egitasmoetako bat da, esaterako, animalien erabilera bortizirik gabeko ikuskizunen aldeko kanpaina.

Zer da zehazki Primadomusen egiten duzuen?

Nolakoa da zuen egunerokotasuna?

Bi departamentu daude, felidoena eta primateena, eta ni felidoen departamentuan aritzen naiz; hau

da, lehoiekin eta tigreekin. Askotariko lanak egiten ditugu: animalien dieta prestatu, zentroaren barruko nahiz kanpoko instalazioak garbitu, animaliak entretenitzeko ariketak prestatu... Horiez gain, animaliekin entrenamenduak egiten ditugu albai-tariak etortzen direnerako prest egon daitezen: ez estresatzeko, lasai egoteko... Era berean, animalien portaeren azterketak ere egiten ditugu, baita animalien behaketa jarraitua ere.

Nolako esperientzia ari da izaten?

Oso esperientzia ona; niretzako esperientziarik onena, ez bairik gabe. Oso positiboa ari da izaten, eta asko ikasi dut: animaliak nola tratatu behar diren, animalien zaintzan zer hartu behar den kontuan... Finean, animalien zaintzaile izateko kontuan hartu beharrekoak ikasi ditut.

Zure ustez, garrantzitsuak al dira animalien zaintzarako zentroak?

Oso garrantzitsuak. Askotan ez gara ohartzeko, baina animalien trafiko ilegal handia dago, eta, batez ere, Espainian. Zentro horiei esker egiten dena zera da: animalia horiek egon behar ez duten lekuetatik ateratzen ditugu, eta haiei ahalik eta bizimodurik onena ematen diegu. Finean, ezin dute beraien habitatera itzuli, eta gu saiatzen gara beraien benetako sena berreskuratzen eta ahal den bizimodurik politena edo lasaia eskaintzen.

Euskal Herrian ba al dago halako lekuri?

Euskal Herrian badaude fauna basatiaren erreskate zentroak, baina ez dira hain ezagunak. Nik dakidala, ez dago boluntariotzak egiteko aukerarik inguruotan; nahiko itxiak dira guneak. Hala ere, Primadomus zentro ezaguna da. Zoritxarrez, Euskal Herrian ez dago horrelakorik, ikaragarri gustatuko litzaidake, baina...

Etorkizunari begira, sektore horretan lanean jarraitzeko asmoa al duzu?

Uneotan ez dut planik. Saiatzen ari naiz mundu honetan lana aurkitzen, baina ez dago erraza. Oraingoz, etxera itzuli eta hurrengo geltokia aurkitzen saiatuko naiz. ■■■



Loratu



ARGAZKIA ETA TESTUA: ALAITZ RUIZ

Kolorez busti dira zelaiak,
udaberriz margotu zuhaitzak.
Sasoi berria, beti eskutik
aukera berriekin datorrena.
Barrura begira jarrita,
hautsak astindu, mamuak agurtu
eta itzal artean ezkutatuak
argiztatzeko sasoi da.
Loratzekoa.
Eta ez banago prest?
Entzun zure erraiek diotena,
ez izan presarik,
baina ezta lotsarik ere
berezi egiten zaituzten kolore horiek
munduari erakusteko.
Loratzeko.
Uda, udazkena eta negua ere
aukera berriekin etorriko diren
sasoiak izango dira eta. ■■■







Hilerokoaz

Bizitzak hamaika bira ematen ditu; hamaika ezusteko on eta ez hain onekin egiten dugu tupust! Horrela, gure bidean marrazten goazen lorratzak norantzez aldatzen dira zenbait bidegurutzetan, eta kapituluak sortzen dira gure historian.

Besteak beste, "jada emakumea zara!" entzutean hasten da neskailen bizitzan atal berri bat. Hilerokoa duen nork ez du entzun esaldi hori? Bada, horrela egin izan zaio askotan ongietorria menarkiari, hau da, lehenengo menstruzioari.

Urte gutxitan asko aldatu da odol jarioaz dugun ikuspuntua; orain arte ezkutukoa eta zikina zen gaia badoa argia ikusten. Nerabezaroan ikasi genuen hilerokoa 28 egunez behin izango genuen odol jarioa zela. Azaleko teoria horrez gain, odola

nola jaso eta ahalik eta garbien eta disimuluen ibiltzeko zenbait pauta jaso genituen. Nire adinekook jasotako hezkuntza hori izan bazen, pentsa gure arbasoena nolako izango zen!

Egun, ordea, egoera bestelakoa da. Hala esan zion nire lagun irakasle batek bere ikasle bati menarkia etorri zitzaioala adierazi ostean: "Begira, horrek, zure gorputza ongi garatzen ari dela eta osasuntsu zaudela esan nahi du!". 10eko erantzuna, bai horixe! Zentzudunagoa eta lagungarriagoa da nerabeentzat

NIRE ABURUZ, EMAKUMEON HELBURUA GURE HILEROKOAREN LAGUN BILAKATZEA DA

guk entzun genuen esaldi ezagun hura baino.

Nire aburuz, emakumeon helburua gure hilerokoaren lagun bilakatzea da. Informazio asko ematen digu odol jario horrek norbere buruaz. Baina, horretarako, garrantzitsua da gure gorputza entzutea eta igortzen dituen mezuak jasotzea. Odolak ez du kolore, usain edo dentsitate bera izaten beti, zergatik? Obulazio zikloaren egun kopurua ere aldakorra izan ohi da, nolaz? Jario hori minarekin lotu behar al da? Elikadura ohiturak, lan kargak, emozioek eta abarrek eragin zuzena dute aurrez aipaturiko puntuetan.

Gure hilerokoa eta geure burua ezagutzeko primerako baliabidea da ziklograma. Grafiko hori eguneroko bat dela esan daiteke. Bertan

HAUXE BAI JENEROA!



menstruazioa noiz jaisten eta amaitzen zaigun seinalatzeaz gain, nola sentitzen garen (sozializatzeko gogoia, umorea...), minik ba al dugun zein beste hamaika apunte hartu genitzake. Naturako parte garenez, gu ere ziklikoak gara, eta esan daiteke ziklo bakoitzean udaberria (aurre obulazioa), uda (obulazioa), udazkena (aurremenstruazioa) eta negua (menstruazioa) bizitzen ditugula gure gorputzean. Hilerokoaz eta faseez informazioa izateak geure burua gehiago ezagutzen lagunduko digu; hori oso baliagarria ahalduntzeko eta hilerokoaren lagun egiteko da.

Bestalde, aurrez aipatu dugu isuri periodikoak hainbat mezu dakarzkigula; usain, kolore zein dentsitateak gure osasunari buruz informazioa ematen digu. Baina hain ezagunak diren

konpresa eta tanpoien bidez nola igarri elementu horiek? Agian iritsi da ueña kopaz, konpresa berrerabilgarriaz edota *free bleeding*az informatzeko. Animatzen?

Gorago aipatutako herriko irakasle hark esan zidan ikasleekin lantzeko duen hilerokoaren kutxatxoan kopa ere baduela. Gainera, zortekoak gara gu Azpeitian, bertan mimoz eginiko konpresa berrera-bilgarriak ditugulako. Gure nerabeek aukera zabala dute, beraz. Hori hala, ahalik eta informazio gehien eman behar diegu, eta ondoren beraiek erabakiko dute zer erabili, zer gorde eta zer alboratu.

Badator maiatzaren 28a, hilerokoaren eguna; aprobeitza dezagun odol jario osasuntsuagoaz eta askeagoaz hausnartzeko! ■■■

HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

Eskolarik gabe

Duela urte eta erdi Ipar Euskal Herriko herri batzuk bisitatu nituen lagun batzuekin, eta harrিতuta bezain pozik gelditu nintzen, sartu ginen taberna guztietan euskaraz komunikatu ahal izan ginelako. Tabernari gazteekin edota adinekoekin lasai aritu nintzen euskaraz. Ez nuen espero horrelakorik, inondik inora ere. Han ere euskararen transmisioa ez dago etenda, arazo batzuk tartean izan arren. Seinale ona da euskaraz gutxi mintzatzea espero den lekuetan euskara bizi-bizi dagoela jakitea.

Euskal Herriko umeek euskaraz ikasten dute: etxean edota eskolan edota bizi diren komunitatean. Hiru eremu horietan guztietan euskaraz egiten dutenak (beraz, %100 euskaraz bizi direnak) ez dira asko izango. Etxean nahiz komunitatean euskaraz bizi ez direnak eskolan soilik aritzen dira hizkuntza horretan. Gainera, ditxosozko birusa nagusitu den egoera honetan, eskolak ixten direnean, eskolan bakarrik egiten dutenek euskara erabili gabe denbora luzea pasatu behar dute (*online* zeozer egiten badute ere, hori ez da nahikoa izango).

Hortxe sor daiteke hizkuntzaren transmisioaren etena. Beste asko bezala, ni ere kezkatuta nago egoera honetan gerta daitekeenaz. ■■■



"Kultura behar da; lehen ere behar zen, eta orain are gehiago"

LIBE ARANBURU AKTOREA ETA BIKOIZTAILEA

Txiki-txikitatik datorcio Libe Aranbururi antzerkirako zaletasuna, eta duela ia hogeitun urte murgildu zen mundu horretan. Egun, 'Hansel eta Gretel' antzezlarekin dabil bateko zein besteko agertokietan, eta pandemiak birako hainbat emanaldi zapuztu badizkie ere, saioekin asko gozatzen ari direla azaldu du azpeitiarrak. Testua: **Anartz Izagirre**. Argazkiak: **Anartz Izagirre eta utzitakoak**.

Agertoki gainean, marrazki bizidunen ahotsen gibelean edo salmahaiaren atzean ikus daiteke, besteak beste, Libe Aranburu (Azpeitia, 1982). Hezurmamitu dituen pertsonaiak beste aurpegi ditu azpeitiarrak, eta azken urteetan antzerki mundutik urrunduta egon ostean, duela bi urte itzuli zen berriro antzokietara. Bere ibilbide artistikoaz luze eta zabal aritu da azpeitiarra.

Hansel eta Gretel antzezlarekin itzuli zara aktore lanetara. Zer sentipen eragin dizu horrek?

2012. urtean utzi nituen agertokiak, haurdun gelditu bainintzen; ordura arteko urteetan jo eta su ibili nintzen. Egia da, behin taula gainetik jaisten zarenean, jendea zurekin ahaztu egiten dela, eta zeuk ere, beharbada, ez duzula egin beharreko dei hori egiten. 2019an hasi nintzen berriro ere antzeztan, *Hansel eta Gretel* lanarekin. Anartzek [Zuazua] proiektu honen berri emateko deitu zidan sekulako poza hartu nuen. Behar nuen. Gustatzen zaizun zerbait barruan duzunean, era batera edo bestera atera egin behar izaten duzu, eta Gretelen rola antzezteko proposamena oparia izan zen niretzat.

Nolakoak izan ziren zuretzat antzeztan horren lehen emanaldiak?

Entseguen prozesua nahiko gogorra izan zen, ez baikenuen behar bezainbeste entseatu lehen saioetarako. Estreinaldira bertigo apur batekin iritsi

nintzen, baina aldi berean, kristoren emozioarekin. Duela urte batzuk antzeztekoan sentitzen nuena berriro sentitzea ederra izan zen, nahiz eta halakoetan burutik pasatzen zaizun: "Zergatik esan ote nuen baietz?". Urduritasun uea izaten den arren, zoriontasun osoa sentitzen duzu momentu horretan, ez baitzara ez ama, ez alaba; nire uea da, gehien gustatzen zaidana egiten gozatzekoa. **Grimm anaien bertsio klasiko itxuraldatua da *Hansel eta Gretel* antzezlana. Zer-nolako harrera izan du jendartearen?**

Oso harrera ona izan du, guk behintzat sentipen hori dugu. Jendea *Hansel eta Gretel* ikustera etortzean, deskolokatu egiten da hasieran, baina umeei asko gustatzen zaie, eta oso ondo ulertzen dute istorioa. Ikusi dugu ahoz ahokoak funtzionatu egiten duela, horixe dela gure antzeztanarentzat publizitaterik onena. Bestalde, duela bi urte Asturiasko FETEN azokan izan ginen; Espainiako arte eszenikoan azokarik garrantzitsuenetako bat da, eta hainbat programatzaile joaten dira hara. Espainian zehar antzezteko hainbat proposamen egin zizkiguten; gero, ordea, COVID-19a iritsi zen, eta bertan behera gelditu zen bira.

Hain zuzen ere, antzezlana aurkeztu eta berehala iritsi zen osasun krisia. Noiz berrartu ahal izan zenituzten emanaldiak?

Martxoko konfinamendua baino astebete lehenago saio bat bertan behera gelditu zitzaigun, eta ikusi





"BERDIN-BERDIN JARRAITZEN DU EGOERAK, ETA ARGI GELDITU DA KULTURUA OSO SEGURUA DELA"

Libe Aranburu, Dinamoan.

genuen zerbait okerragoa etor zitekeela. Nire kasuan, gainera, ez nuen antzezlanik egiterik izan, eta arropa denda ere itxita eduki behar izan nuen. 2020ko irailean-edo hasi ginen berriro martxa hartzen; izan ere, uda nahiko lasaia izan zen. Antzezlanak berrartu genituenean kuriosoa iruditu zitzaidan PCR proben kontua. Futbolarietara eta partidak jokatu aurretik probak egiten dituzte, baina guk ez genuen halakorik egiten emanaldien aurretik; hor ikusten da beste sektore batzuekiko desberdintasuna. Eta, pentsa, gu agertokian elkar besarkatuta ibiltzen gara, eta maskararik gabe, gainera. Kontuak kontu, gustura itzuli ginen antzokietara, ilusioz, eta jendearen erantzuna ere oso ona izan zen. Hasieran uste genuen egoeragatik jendea ez zela emanaldietara joango, baina gero ikusi genuen baietz, jendea etorri zela. **Kultura lur jota utzi du COVID-19ak eragindako osasun krisiak, eta alor horretako profesionalak hasieratik ari zarete kultura segurua dela aldarrikatzen. Urtebeteren ostean, aldatu al da zerbait?**

Berdin-berdin jarraitzen du egoerak, eta argi gelditu da kultura oso segurua dela. Izan ere, aretoetan maskararekin egoten da jendea, bakoitza bere aulkian, distantzia mantentzen, eta, gainera, debekatuta dago jatea. Bakoitzak bere egin

beharrekoak ondo betez gero, ez dago arriskurik. Gauzek, ordea, berdin jarraitzen dute; nik, aktore bezala behintzat, ez dut aldaketarik sumatu.

Antzezterakoan asko antzeman al duzu publikoaren berotasun falta, ala segurtasun neurriek ez dute hainbesteko aldaketarik ekarri?

Niri ez zait hoztasunik iritsi. Egia da herri batzuk besteak baino hotzagoak izaten direla, baina hori maskara gabe ere igartzen da, eta jaso dugun berotasuna maskararik gabe jasoko genukeena bezalakoa izan da. Tamalez, esango nuke gehiegi ohitu gara ikusleak musukoarekin ikustera, eta beldurra ematen dit horrek.

Herritarrak kultur egarri direla dirudi, ikusi besterik ez dago areto asko bete egiten direla. Zer iritzi duzu horren inguruan?

Bai, hala da. Pontevedrara [Galizia] joan ginenean, adibidez, itxita zegoen guztia, eta gurea zen hainbat hilabete eta gero egin zen lehenengo antzezlanetako bat. Ez genekien jendea antzezlana ikustera joango zen ala ez, baina bi saio egin genituen, eta bietan aretoa bete egin zen. Ikusi dut jendeak sekulako gogoia duela ekitaldietarako, eta guraso naizen aldetik, umeei gogo hori antzematzen diet. Kultura behar da; lehen ere behar zen, eta orain are gehiago.



"IRUDITZEN ZAIT TXIKIA ETA GUREA DENA AHAZTU EGITEN ZAIGULA; HAU DA, ETB ETA ANTZERKIA"

"FILMAK JATORRIZKO BERTSIOAN IKUSTEA EUSKARAREN KASUAN SOILIK PROPOSATZEN DA"



Atzera begira jarrita, noiz hasi zinen antzerki munduarekiko interesa izaten?


Aktore izatea betidanik nahi izan dudan zerbait da. Gainera, lehengusua eta osaba ere aktoreak izanda, beti joaten nintzen Euskal Antzerki Topaketetara. Hazi nintzenez ere, oso garbi nuen aktore izan nahi nuela, eta gurasoek esaten zidaten lehenengo beste gauza batzuk egiteko, eta ondoren izango nuela horretan aritzeko aukera. Nik, ordea, esaten nien lehenengo hori egingo nuela, eta gero izango nuela beste gauza batzuk egiteko aukera. Gurasoek etsi egin zuten azkenean, eta antzerkigintza ikasten hasi nintzen. Gaur egun, ulertzen dut nire gurasoen orduko jarrera, sarritan presio soziala jasan behar izaten delako horrelako kontuekin, baina nik, guraso naizen aldetik, lehen pentsatzen nuen gauza bera pentsatzen dut orain ere.

Ikasten hasi zinen garaiko zer oroitzen dituzu?

Getxoko [Bizkaia] eskola batean ikasi nuen antzerkia, lau urtez. 08:00etatik 15:00etara izaten nituen klaseak, eta hainbat arratsaldetan ere joaten nintzen hara, emanaldiak prestatu behar izaten genituenean. Denbora asko eskaintzen nion antzerkiari; pentsa, ikasten egon nintzen lau urte haietan ez nintzen ostegun bakar batean ere parrandara atera Bilbon. Hainbat antzezlan egin nituen ikasten ari nintzen bitartean; izan ere, eskolan bertan antzezlanak sortu eta hainbat ikasle aukeratzeko zituaten obra horietarako. Ondoren, ikasketak amaitutakoan, casting bat egin nuen Glu-Glu antzerki konpainiarekin, eta *Hiru txerrixoak* izan zen egin nuen lehen antzezlan. 2013. urtera arte konpainia harekin ibili nintzen lanean, 2002an hasita. Gogoratzen naiz, une batean, aldi berean bost obratan aritu nintzela lanean: euskaraz, gaztelaniaz, helduentzat, haurrentzat... Intentsoak izan ziren garai haiek, baina ez nituzke ezergatik aldatuko. Orain, ordea, ezingo nuke maila hartan lanik egin, guztiaren gainetik ama naizelako.

Urte hauetan guztietan egon al da bereziki markatu zaituen antzezlanik?

Obra hori, agian, iristeko dago oraindik. Orain arte egin ditudan antzezlan guztiak eragin desberdina izan dute nigan, baina *Su txikian* antzezlanaren prozesua oso aberasgarria izan zen. Jesus Egigurenekin, Arnaldo Otegiarekin eta haien familiekin egon ginen hizketan antzezlan prestatzeko, eta prozesu polita izan zen hura. Egunero-egunero tripak buelta ematen zidan, eta asko ukitu ninduen antzezlan hark. Hura izan zen haurdun gelditu aurretik egin nuen azken antzezlan.



Aranburu parte hartu duen hainbat antzezlanetan eta telebista saiotan. UTZITAKOAK

Telebistako hainbat saiotan eta telesailetan ere egin dituzu aktore lanak. Asko antzematen al duzu antzerkitik telebistarako aldaketa?

Sorgintxulo saioan hasi nintzen Gorritxo pertsonaiari ahotsa jartzen, eta, ondoren, *3txulon* Izeba Kattalin pertsonaia gorpuztu nuen.

Hasieran, noizean behin ateratzen zen pertsonaia hura saioan, baina azkenean, gero eta presentzia handiagoa hartu zuen. Telebistako lana beste kontu bat da; asko aldatzen da lan egiteko modua. Dena den, oso erosooa zen lan hura; astean behin edo bitan joaten nintzen grabaketetara, hainbat saio batera grabatzen baikenituen. Bestalde, programa horretan parte hartu aurretik, *Pilotari* telesailan ere aritu nintzen, gaiztoarena egiten. Gaztea nintzen orduan, eta ez nuen konfiantza handirik neure buruarengan, baina oso esperientzia aberasgarria izan zen hura ere.

Egun pil-pilean daude euskal ekoizpenak. Euskal Telebistak, esaterako, hainbat telesail labor estreinatu ditu azken urteetan. Nola ikusten duzu egoera?

Bizi izan ditugun urteak bizi eta gero, orain behintzat saltsa dagoela ikusten da. Mugimendua izatea ona da, telesailak onak ala txarrak izan.

Ikus-entzunezko plataforma berriek izan al dezakete eraginik euskal ekoizpenen ugartze horretan?

Bai, noski. Dena den, iruditzen zait txikia eta gurea dena ahaztu egiten zaigula askotan; hau da, ETB eta antzerkia. Horiek ez dira bultzatzen, eta badago hemen lan egin nahi duen jendea; ni, adibidez, ez naiz sekula Madrilera casting bat egitera joan, ez dut inoiz bide hori landu.

Bikoiztaile ere bazara. Urteak daramatza Bikoiztaile Euskaldunen Elkarteak lan baldintza duinak eskatzen.

Soldataren %32 jaitsi ziguten, eta hori ezin da jasan. Lanean ari ginen, baina zeren truke? Nik egunero Bilbora joan behar izaten nuen, bidesaria eta TAO ordaindu... Egoera horren aurrean zerbait egin behar zela eta, planto egitea erabaki genuen. Nik garai hartan lan mordoa nuen, egunero joaten nintzen lanera, baina gauzak ez dira norberagatik soilik egin behar. Denok, ordea, ez dugu berdin pentsatzen; bikoiztaile askok planto egin genuen, baina beste batzuek lanean jarraitzea erabaki zuten. Ia hiru urte daramatzagu lanik egin gabe, eta lehen 80 pertsonak bikoizten zutena dozena batek bikoiztuz gero, kalitatea asko jaisten da. Halakoetan ikusten da benetan zenbat axola zaien Zineuskadiri eta ETBri euskal ekoizpenaren kalitatea.

Jarrera aldaketarik sumatu al duzue azken urteetan?



Aktorea *Hansel eta Gretel* antzelaneko lantaldearekin. IÑAKI ARANBURU

Beste eremu batzuetan dagoen moduko hitzarmena eskatzen dugu, eta horretarako ari gara lanean sindikatuekin. Hainbat pertsona lan handia egiten ari dira borroka horren alde. Politikariekin ere bildu gara, eta badago mugimendua. Badugu esperantza, baina egoera hau ere jasan egin behar da, bikoiztaile gehienok beste lan batzuk hartu behar izan baititugu eta prozesua luzea ari baita izaten. Gauzak lortzen ari gara, baina lanuztearekin jarraituko dugu.

Zer-nolako garrantzia du zure ustez ikus-entzunezkoak euskaraz bikoizteak?

Herri eta hizkuntza zapaldu bat izanda, iruditzen zait ez dagoela azalpen handirik eman beharrik. Euskarak bizi duen egoera kontuan izanda, lehenengo urratsa kalitatezko materiala euskaraz edukitzea da. Askok esan ohi dute arraroa egiten zaiela filmak euskaraz ikustea, baina marrazki bizidunekin ez da gauza bera gertatzen. Zergatik? Ohitu egin garelako marrazki bizidunak euskaraz ikustera, baina filmak eta telesailak ez. Sekulako lana egin behar da jendea horretara ohitzeko. Gainera, filmak jatorrizko bertsioan ikustea euskararen kasuan soilik proposatzen da, beste hizkuntzetan ez. Txantxa bat iruditzen zait.

Nagusiki marrazki bizidunak ematen dituzten kate propioa du Euskal Telebistak: ETB3. Kate horrek egun duen egitura ikusita, lehiakorra al da?

Ez, ez da. ETB3k hurrei merkatuan dagoena eskaini behar die, euskaraz, eta beti hobetzen joan behar du. Nire alabak 7 urte ditu, eta ez da normala hark *Pippi Kaltzaluze* dagoeneko errepikatuta hiru aldiz ikusi izana. Horrek ezin du horrela izan. Marrazki bizidun mordera dago, erosi egin behar dira, eta, ondoren, euskarara bikoiztu. ETBk erosten dituen marrazki bizidunak beste inon ikusten ez direnak dira.

Orain arte hainbat bikoizketa egin dituzu. Zein da zure pertsonaia kuttuna?

Maya erlea. Pertsonaia hori bikoizteko eskatu zidatenean, oraindik ez nituen protagonista asko bikoizten, eta asko disfrutatu nuen harekin.

Bikoiztaile, antzezle, dendari... Probatzeko ezer gehiago falta al zaio Libe Aranbururi?

Antzerki munduan oso pozik nago orain, eta gustatuko litzaidake berriro ere bikoizketara itzultzea; izan ere, nire ogibidea da, eta oso gustura aritzen naiz horretan. Lana eta lanean gutxieneko segurtasuna izatea soilik eskatzen ditut. ■■■



Pepe

Amildegia ertzean

Herriko gazteek ibaian orduak eta orduak ematen zituzten lehen, nork amuarrain gehiago harrapatuko. Orain, baina, arau berriak eta amuarrainaren gainbehera tarteko, askoz ere jende gutxiagok du afizio hori. Atsekabetuta daude betiko arrantzaleak, nahiz eta zenbait gazteren ilusioak itxaropen pixka bat piztu dien. Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Ihintza Elustondo eta utzitakoak**.



Duela ez hainbeste urte, inguruko ibaiak arrantzalez josita egoten ziren. Botak eta txalekoa jantzi, kanabera hartu, eta ibaian zer aurkituko bertaratzen ziren hainbat eta hainbat herritar. Denborarekin, baina, indarra galtzen joan da afizio hori, eta zaletasunari eutsi diotenak oraindik badiren arren, ez da lehengo mugimendurik Urola ibaian. Urtez urte gainbeheran joan da arrantza, amildegiaren ertzerira iritsi den arte.


Afizio handia duten bi herritar dira Alberto Merino (Azpeitia, 1981) eta Jose Luis Zendoia (Azpeitia, 1951). Merino Azpeitian arrantza kontuez arduratzen da; hau da, Ollagorra elkarteko arrantza eta ehiza arduraduna da. Zendoia, berriz, urteetan kirol horren bueltan lan asko egindakoa da; aurrena Ollagorran aritu zen, eta gaur egun, Zumaiako Anade elkarteko kidea da.

Ollagorrak arrantzari lotutako ekitaldi bat antolatu behar izaten du urtero, kirol elkarte izaerari eusteko. Lehen, umeen arrantza txapelketa antolatzen zuten; azken urteotan, baina, ez dute lehia hori antolatu. "Araudia asko aldatu da azken urteotan. Lehen, Gipuzkoako ibaietako eremu gutxi batzuk baino ez ziren hil gabeko arrantza eremuak, eta orain, arrainak hiltzea baimentzen duten zati gutxi daude". Azpeitia inguruan, bi tokitan dago baimenduta

1996ko arrantza txapelketako irudi bat.

PEPE GIL

Aitzol Aranguren, Pello Etxeberria, Ametz Salegi eta Mikel Etxeberria, Urola ibaian.



Hainbat urtetako arrantza txapelketetako irudiak. UTZITAKOAK

hildako arrantza praktikatzea: Errezil errekan, Estradazar baserriko zubitik Domusa zubira bitartean, eta Ibaieder ibaian, Zapatari baserriatik Azpeitiko Toberagile errotako presaraino. Lehen, amuarrainak hil egiten zituzten txapelketetan, baina aldaketa horrek zailtasunak eragin zizkien Ollagorrakoei: "Hil gabeko arrantza txapelketa bat antolatzeak askoz ere lan gehiago eskatzen du, azpiegiturari dagokionez; izan ere, arrainak hiltzen ez badira, amuarrainen neurriaren arabera egiten da lehia, eta arrainak harrapatu ahala neurtu eta soltatu egin behar dira. Hori horrela izan dadin, antolatzailer taldean jende asko behar da", azaldu du Merinok. Arrantza elkartekoez ez zuten bideragarri ikusten halako txapelketa bat antolatzea.

Eztabaida arrantzaleen artean

Txapelketa bertan behera utzi izana ez da Azpeitiko arrantzaleak atsekabetu dituen gauza bakarra; arrainak ez akabatzearen aldeko apustuak ere eztabaida sortu du arrantzaleen artean. "Oso gai korapilatsua da; batzuk hiltzearen alde daude, eta besteak kontra. Eztabaida asko izan ditut nik gai horren inguruan. Gure soziedadeko jendeak ulertzen du batzuek hil gabeko arrantza egin nahi izatea, baina hil nahi duen arrantzaleari ere utzi egin behar zaiola pentsatzen dute gehienek", azaldu du Merinok.

Haren arabera, "batez ere adineko jendearen artean" egon izan da eztabaida. "Adineko gehienek zizarearen arrantza egin ohi zuten; hori betiko modalitatea da, ibaira gehiegi sartu gabe praktikatu daitekeena. Dena den, zizarearen arrantza hildako arrantza dela ulertzen du Gipuzkoako Arrantza Federazioak, eta debekatuta dago praktikatzea. Horregatik, adineko jendeak kolpera laga dio arrantza egiteari, derrigortu egin dituztelako".

Urtez urte, araudia mugatzen joan dira, eta horrek hainbat arrantzale atsekabetu du. "Araudiak onartzen du kirola dela arrantza, eta kirola den heinean, amuarrainak hil beharrik ez



dagoela". Hil gabeko arrantzaren aldeko apustua egiteko arrazoia beste bat ere izan dela uste du Zendoiak. "Nire iritziz, erabaki hori hartzeko, amuarrainaren gainbeheran oinarritu da federazioa. Amuarrainaren beherakadari aurre egiteko bidean, kalterako ez da izango hil gabeko arrantza sustatzea, baina horren aldean arazo handiak daude".

Amuarrainaren gainbehera

Horretan ez dago zalantzarik: azterketek adierazten dute inguruko ibaietako amuarrainen kopurua izugarri murriztu dela azken urteotan. "Azterketek esaten dute beherakada horren eragilea ez dela arrantza, beste faktore batzuek gehiago eragin dutela: industriak, Irurenakoa bezalako istripuek...", azaldu du Merinok. "Horrelako ezbeharrek, amuarrainak hiltzeaz aparte, haien jatekoa ere desegiten dute. Eta ez da Irurenako sutea bakarrik, horrelako gehiago gertatu izan dira, eta denek eragin dute sekulako kaltea ibaian. Halako baten ostean, urteak behar izaten dira berriro lehengo fauna berreskuratzeko", erantsi du Zendoiak.

Ibaia kaltetzen duten ezbehar horiek izendatzeko, "erreketa" hitza baliatu du Zendoiak. Baina zer dira erreketak? "Erreketak ez dira suteak eta istripuak bakarrik. Esaterako, baserritarrek ganaduaren pisa ibaira botatzen dutenean ere, kalte handia jasaten du ibaiak. Produktu kimikoak, likidoak, disolbatzaileak... ibaian dagoen fauna hori kaltetzen duen edozer da erreketa". Arrantzari mugak jarri zaizkion arren, halako gertaeren aurrean neurririk ez dela hartzen salatu dute. "Sekula ez dute errudunik aurkitzen".

Merinok ere uste du beste eremu batzuetan hartu behar direla neurriak: "Teknikariek esaten dute nahiko garbi dagoela arrantza ez dela amuarrainaren gainbeheraren erruduna. Hala ere, arrantzan neurriak hartu dituzte, baina beste eremu batzuetan ez: industrian, adibidez. Beti esan izan dugu jarraipen bat egin behar dela; hau da, isunak jarri behar badira jarri egin behar direla. Eta isuna ez dadila



HIL GABEKO ARRANTZA SUSTATZEAK EZTABAIDA SORTU DU ARRANTZALEEN ARTEAN

AZTERKETEK ERAKUSTEN DUTE IBAIETAKO AMUARRAIN KOPURUA MURRIZTU DELA AZKEN URTEOTAN



Alberto Merino, Pello Etxeberria, Ametz Salegi, Mikel Etxeberrria, Aitzol Aranguren eta Jose Luis Zendoia.

izan multa soil bat; izan ere, bestela ordaindu eta berriro gauza bera egingo dute. Fokua aldatu behar da. Zenbat kostatzen da galdu den fauna hori berreskuratzea? Isuna lanketa hori egitera bidera dezatela".

Arrantzaleen ustez, ibaiaren osasuna kaltetu izanak eragin du amuarrain kopurua gutxitzea, eta gainera, birpopulaketarik egiten ez dutela uzten adierazi dute. "Historikoki, amuarrain asko soltatu izan da inguruotan; amuarrain haztegi bat zegoen, kanpotik arrainak ekarri eta ibaian askatzen ziren... Horrela bizia ematen zitzaion ibaiari, baina, gero, diputazioa eta animalien aldeko elkarteak azterketak egiten hasi ziren, eta ondorioztatu zuten birpopulaketa horiek bertako espezieari kalte egiten ziotela, kanpoko eta bertako espezieak elkarrekin nahasten zirelako. Hori dena saihesteko, birpopulaketak debekatu zituzten. Guk egiten ditugu birpopulaketak, baina amuarrain antzuekin, bertako espeziearekin nahas ez daitezten; modu horretan soilik egitea onartzen digute".

Arrazoi horiek guztiak medio, arrantza goitik behera amiltzen ari dela uste dute Zendoiak eta Merinok. Zendoiak, dena den, garaiak ere asko aldatu direla dio. "Lehen, guk ez geneukan besterik. Ibaia, eta, agian, futbola. Baina oraingo umeek gauza pila bat egiten dituzte: eskola, saskibaloia, futbola... Lehen, herri erdia arrantzan ibiltzen ginen. Orduan, zer zegoen ba? Arrantza. Gainera, gure gurasoak ere ibiltzen ziren, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen zen afizioa. Nire ustez, transmisio eten horrek eragin du kalterik handiena. Gainera, arrantzak asko eskatzen du: goizean jaiki egin behar da, errekan ibili... Umea ez dago arrantzara bakarrik bidaltzerik, gurasoak ere joan egin behar du harekin, eta orain, gurasoek nahikoa lan beren kontuekin... Orain ez da lehen bezala".

Garaiak aldatu izanaz gain, beste faktore batzuek ere eragin dute zaletasunaren gainbeheran, Merinoren ustez. "Egun, arrantzara joan eta umeek ez dute arrainik harrapatzen, amuarrain gutxi



dagoelako; horregatik, pixkanaka afizioa alboratzen joan dira. Izan ere, egiten duzunak fruiturik ematen ez duenean... Gainera, lehen erakundeek gehiago bultzatzen zuten arrantza. Dena lotuta dago".

Zenbait gazteren ilusioa

Arrantzaren egungo panorama nahiko beltza da, beraz, eta Merinoren eta Zendoiaeren arabera, ez Azpeitian bakarrik: "Leku guztietan ari da gertatzen gauza bera". Dena den, badira Azpeitian orduak eta orduak ibaian sartuta ematen dituzten gaztetxo batzuk: Mikel eta Pello Etxeberría anaiak (Azpeitia, 2008), Ametz Salegi (Azpeitia, 2008) eta Aitzol Aranguren (Azpeitia, 2008).

Asteburuetan igarotzen dituzte ordu gehien arrantzan, "astegunetan eskolako lanak" izaten dituztelako. "Larunbatetan 08:00etarako joaten gara arrantzara", diote. Goiz eta arratsalde egon ohi dira ibaian, begiak argi eta kanaberak eskuan.

Arrantzaren beherakada nabaritu dute gaztetxo horiek ere. "Jende pixka bat ibiltzen gara arrantzan, baina ez aurreko urteetan bezainbeste. Iaz ez zuten amuarrainik soltatu, eta jendeak ez zuen ezer harrapatzen; horrela, aspertu egiten dira". Helduek hori hala dela baieztatu dute; koronabirusa tarteko, ez zuten amuarrainik askatu lehengo urtean. "Aurten askatu dituzte amuarrainak, baina jendea ez da hasi arrantzan, eta...", erantsi dute gazteek. Gainera, haien arabera, neskarik apenas ibiltzen da ibaian.

Eskolan ez bada, ibaian, eta ibaian ez bada, saskibaloian edo futboleak; ez da etxean egotekoa gazte kuadrilla. Baina arrantzak badu zerbait, beste kirolek ez dutena. "Amuarraina harrapatzean sentitzen duzuna sekulakoa da. Tira egiten dizu arrainak, eta emozio asko eragiten ditu horrek", adierazi du Salegik. Gaztetxoak izanagatik, maite dituzte ibaiko animaliak, haien formak ezagutzea, haien tirakadak sentitzea. "Segi dezatela horrelaxe, ez dezatela afizioa gal", diote helduek, gazteen grinak piztutako itxaropen apurrarekin. ■■■



"ARRANTZAN NEURRIAK HARTU DITUZTE, BAINA BESTE EREMU BATZUETAN EZ", DIO MERINOK

"TRANSMISIOAREN ETENAK ERAGIN DIO KALTERIK HANDIENA ARRANTZARI", AZALDU DU ZENDOIAK



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: **688 69 29 51**

IRENE ALTUNA
SORADENA

Lorola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ekaina-denpa.com



**ERLOJU
KONPONKETAK**

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Koh Tao

OSAGARRIAK +
PIERCING ESTUDIOA

9. JOSE DE KATIDEA, 16- 20730 AZPEITIA T. 628 738 758

LAU
NEUMATIKOAK

PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA

943-053056 Loroak kalea 20, 20730 Azpeitia



adi AJATE ETA
DISENU
ESKOLA
ELKARTEA

- Marraskia eta eskulanak**
(haurrak) 17:30 - 19:00
- Pintura** 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
- Talla** 18:30 - 20:00

Jose Arribe kalea, 3
943 81 29 08
www.adiaino@gmail.com
Matrikula urte osan zabalik



Aiortza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerean!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiortza@aiortzaautoak.com



Eurofiner ELBROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

NON DAGO UZTARRIA?



Kontxi Zinkunegi da hilabete honetako irabazlea.



Apirileko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 28. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Kontxi Zinkunegi bazkidea izan da irabazlea. Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarrria@gmail.com e-postara maiatzaren 21a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira. **Saria:** Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.




**URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

OSASUNARI ADI, IKUSMENETIK



Gustukoa egitea, ezagutza eta gertutasuna. Horiek dira jendea zereginak ondo egitera eramaten duten oinarriak, eta horretan adituak dira Jone Fernandez eta Eli Kortadi. Bezeroaren ikusmena, eta osasuna osotasunean, goxo zaintzen dituzte.

Txikitatik argi zuen Jone Fernandezek Optika eta Optometria ikasketak egin nahi zituela. Hala, garaia heldu zitzaionean, Madrilerako bidea hartu zuen. Ikasketak amaituta, Azpeitira itzuli eta Ikus optikan lanean hasi zen. Bertan ezagutu zuen Eli Kortadi, eta bien arteko konexioa bat-batekoa izan zen.

Jone gustura zegoen lanean optikan, baina jakintza eta esperientzia areagotu nahian, Begitek klinikara joan zen lanera. "Ikasten ari nintzen garaitik nuen klinika batean lan egitea zer zen probatzeko gogoia, eta aukera sortu ahala, baiezkoa eman nuen Begiteken. Optika pena handiz utzi nuen arren, bi urte emankor izan ziren; izan ere, optometriari eta ikusmen-terapian aritu nintzen optikan, eta klinikan, aldiz, patologiak lantzen. Etengabeko formazioa izan da", azaldu du optikariak.

Zerbitzuak gehituz

Optikako lanera itzuli eta Eli lankidearekin elkartzeko gogoiz, lehendik ezaguna zuen optika hartu eta Adi sortu du. "Adi, optika bat ez ezik, osasun zentroa izatea nahi dut. Hau da, betiko zerbitzuez gain, berriak eskaintzeko asmoa dut; audiologia, logopedia edo osteopatia, adibidez. Gaur egun, arlo desberdinetako adituek elkarrekin lan egiteko joera dago, eta hori nahiko nuke", dio Jonek.

Gaur egun Adi optikak eskaintzen dituen zerbitzuak honako hauek dira:

- Korneako topografia
- Tonometria
- Retinografia
- Ukipen lenteak
- Ikusmen-terapia



"Gainera, zerbitzu horiek ematean, eta klinikan lortutako ezagutzari esker, alterazioa detektatuz gero, bezeroa oftalmologoarengana bidera dezaket", agertu du. Gustukoa egitea, ezagutza eta gertutasuna. Horiek dira Adi optikaren oinarriak, eta horiek betetzeko ahalegina egiten dute Fernandezek eta Kortadik. Bezeroaren ikusmena, eta osasuna osotasunean, goxo zaintzen dituzte.

**adi** optika/audio zentroa

zure begien irribarrea gara

Azpeitia Jose Artetxe 21

 943 157 574  663 637 355



www.adi.eus

"Begiratu eta harritu egiten dira sokatiran aritzen naizelako"

MAIDER ETXEZABAL SOKATIRALARIA

Kirolak Maider Etkezabalen egunerokotasunaren zati nagusi bat hartzen du. Aisialdian igeriketan, sokatiran eta lokotx biltzen aritzen da; lanbidez, berriz, hezitzaile fisikoa da, eta astean zehar Euskal Herriko txoko ugari bisitatzen ditu helduei kirola egin dezaten laguntzeko.

Testua: **Nora Alberdi**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Gaztetxoa zenetik argi zuen Maider Etkezabalek (Azpeitia, 1990) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua ikasi nahi zuela; bigarren aukerarik ez zuen izan buruan. Zalantzak zituen, ordea, gradura sartzeko beharrezko batez bestekora iritsiko ote zen. Hain zuzen ere, Lanbide Heziketako ziklo bat egin ondoren lortu zuen unibertsitatera sartzea. Gasteizen, unibertsitate garaian, ezagutu zuen sokatiraren mundua, eta ordutik Gasteizko Badaiotz taldean aritzen da.

Fakultatean Kirolaren Eguna ospatzen dute urtero, eta maila guztien artean askotariko kirolak probatzen dituzte. Etkezabalen taldeak bi urtez jarraian irabazi zuen sokatirako lehia. Orduan piztutako gogoari tiraka, sokatiran dabil ordutik: "Ezagutu berri dudan jendeak zer kirol egiten dudan galdetzen didanean eta nik

sokatiran aritzen naizela esaten didanean, goitik behera begiratzen didate eta harritu egiten dira. Sokatiran aritzen diren emakume guztiak ez dira handiak, eta jendeak hori pentsatzea frustragarria da".

Uneotan, Euskal Herrian oso gutxi dira emakumez osaturiko sokatirako taldeak: Gipuzkoan, Ibarra; Bizkaian, Gaztedi; Araban, Badaiotz –Etkezabalen taldea– eta zenbait urtez Artziniega, eta Nafarroan, Lesakako Beti Gazte, Antsoain, Berriozar eta Txantrea. Nafarroan, eskola kirolean hasten dira gaztetxoak sokatiran; hezkuntza sisteman bertan txertatuta dute kirol hori.

Badaiotz taldea Euskal Herri osoko emakumeek osatzen dute, eta horregatik, COVID-19ak eraginda, arazo ugari izan dituzte elkarrekin entrenatu ahal izateko: "Txapelketarik ez bazegoen, ezin genuen entrenatu. Martxoan txapelketa bat antolatzea



sokaitira

1 iz. Bi talderen artean jokatzeko den
herri kirola, soka baten alde banatan
jarririk, talde bakoitzak bere
alderantz tiraka, beste bere
alderdira ekartzeko datana. Hainbat
eta hamasei urteko gazteak aritzen dira

sokaitira.

sokaitira

iz. Sokaitira hitzen den



lortu genuen, eta hilabete eta erdiz izan genuen elkarrekin entrenatzeko aukera. Orain, astean behin elkartzeko gara, baina une oro, etorriko diren aldaketa berrien zain gaude".

Etxezabal astean zehar hezitzaile fisiko lanetan aritzen da. Egiteko hori dela eta, Donostiara, Urrestillara, Gasteizera, Berantevillara (Araba), Zanbranara (Araba) eta beste hainbat herritara joaten da: "Alde batetik, etxeetara joaten naiz, norbanakoengana; eta bestetik, taldeekin aritzen naiz. Enpresa batekin lan egiten dut, eta hango kideek esaten didaten lekura mugitzen naiz. Orain, adibidez, Goierriko zenbait herritan hastekoa naiz lanean". Erabiltzaileen adinari dagokionez, 65-70 inguruko pertsonekin aritzen da lanean, nahiz eta Goierri izango dituen taldeetako kideak gazteagoak izango diren.

Lokotx bilketa

Udan atsedena hartzen dute sokatiran, eta beste zenbait herri kirol egiten dituzte Badaiotzeko kirolariek. Taldekideen artean herri kirolak banatzea egokitu zenean, Etxezabali lokotx bilketan aritzea tokatu zitzaion: "Ni nintzen korrikan gehien ibiltzen zena, eta besteak indar kontuetan ni baino trebeagoak ziren". Lokotx bilketa erakustaldiak egiten dituzte herriz herri, munduko txapelketetara joan ahal izateko finantzazioa lortzeko, baina, horrez gain, Arabako herriarteko txapelketetan ere parte hartzen dute.

Etxezabalek, hain zuzen, Arabako Lokotx Txapelketan parte hartu izan du. Eta parte hartu soilik ez: 2019an, Arabako lehia irabazi, Euskal Herrikorako sailkatu eta hura ere irabaztea lortu zuen: "Ilusio handia egin zidan, inoiz ez nukeen pentsatuko txapela lortuko nuenik. Gainera, arerioak oso indartsuak ziren". Aurten ere

irabazi du Arabako txapelketa, eta Euskal Herrikoan aritzeko aukera eskuan zuen, baina astebete lehenago konfinatu egin zuten, eta ezin izan zuen lehiatu.

Igeriketa eta korrika

Kirol asko probatu izan ditu Etxezabalek, baina igeriketan aritu izan da modu jarraikorrean: "Txikitan asko kostatu zitzaidan igeri egiten ikastea, eta uste dut horregatik ekin niola gero oraindik eta indar gehiagorekin". 10 urterekin hasi zen Izarraitz igeri elkartean trebatzen, eta duela gutxi arte, Zarautzera bizitzera joan arte, taldearekin aritu da. Orain, Zarauzko master taldearekin aritzen da. "Eguna eta gaua dira sokatira eta igeriketa: bata, taldean egiten da, eta bestea, banaka; batean indarra lantzen da, eta bestean, beharbada, garrantzitsuagoa da erresistentzia".

Lasterka aritzea ere gustuko du. Azpeitiarrak oroitzen duenez, txikitan zaharragoak ziren lehengusuen eta anaiaren atzetik ibiltzen zen

Maider Etxezabal

- **Jaiotze data:** 1990eko abenduaren 3a.
- **Lanbidea:** Hezitzaile fisikoa.
- **Ikasketak:** Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua.
- **Hezitzaile fisikoa ez bazina...** Ez dakit. Ziurrenik, kirolari loturiko zerbaitetan arituko nintzateke.
- **Lanetik kanpo, zer?** Kirola egin, lasai egon, buelta bat eman, lagunekin egon eta mendira joan.



korrika; orduan, baina, besteen atzetik ibiltzen zen beti, haiek egiten zutena egiten. Anaiak eta lehengusuek lasterketetan parte hartzeari ekin zioten, Etxezabalek haien bide bera jarraitu nahi izan zuen. 5 urte zituela parte hartu zuen lasterketa batean lehen aldiz. "Korrika egitea denbora-pasa bat zen niretzat, ez nuen kiroltzat hartzen. Gero, igerian hasita ere, krosetan parte hartzen jarraitu nuen, baina besterik gabe. Eskola kirolean atletismorako izena ematen nuen, baina inoiz ez zen talderik osatzen".

Munduko txapelketak

Munduko hiru sokatira txapelketatan lehiatu da Etxezabal: 2020ko otsailean, Irlandan; 2018an, Txinan; eta 2014an, Irlandan. Lau eguneko txapelketak izan ohi dira mundukoak; ostegunetik igandera egin ohi dituzte. Ostegunean eta ostiralean klubean arteko


txapelketak jokatzeko dituzte, eta nahi duenak izaten du horietan izena emateko aukera. Nazioarteko txapelketa, berriz, larunbatean eta igandean egiten da. Euskal Herriko selekzioa lehia horretan aritzen da, eta horren arrazoa da Espainiako Estatuan beste herri kirol federaziorik ez izatea.

"Aurreko urtean lehenengo aldiz parte hartu nuen nazioarteko txapelketan, Euskal Herria ordezkatzuz, eta oso berezia izan zen. Gainera, bigarren egin genuen. Klubean lehian, berriz, finala jokatzeko aukera izan zuen nire taldeak; ni kanpo gelditu nintzen, baina urrea irabazi genuen Txinaren aurka. Oso zaila ikusten genuen lorpen hori eskuratzea, inork ez zuen espero halakorik, baina bi tiraldiak irabazi genituen. Bertan sortu zen tentsioa sentitzea soilik, esperientzia polita izan zen". ■■■



erreforma integralak

dica.



URRATEGI
INTERIORISMO
barru diseinua


www.urrategiinteriorismo.com
Arragueta 27 Arretxe 9
20600 Eibar 20730 Azpeitia

Pareak bai!

Afrikako animalia ugari ezagutzen duzu. Fraga ezazu orain, zenbat dakizun zure inguruko zuhaitzetan. Lotu zuhaitz bakoitzari dagokion fruitua.



Sudokua



Ezagutzen al duzu udaberria esateko beste modurik? Beharbada zure herrian ez, baina BEDATSE ere esaten zaio, edo BEDATS. Ora itzazu sudokua lau zuriak BEDATS hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, D, A, T eta S). Gogoratu, sudokua zuzena izan dadin, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

IKUSI-MAKUSI

Horra gure aitona-amonen aitona-amonek beren haurtzaroan landatutako zuhaitza. Ikaragarri handitu da, ezta? Eta gainera, paisaiaren antzaldaketaren lekuko isila izan da. Ezer ez da lehen bezalakoa, baina badira hainbat elementu bi inrdietan ageri direnak. Bederatzi dira. Ikusten al dituzu?



Labirintoa

Etxe-txalarrak beheto teiatupean egin nahi du habia. Lagun iezaiozu haraino heltzen. Harretarako, habia egiteko baliatuko dituen elementuak jarraitu behar dira, orden honetan: belarra (1), hosto lehorra (2), lastoa (3) eta luma (4). Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.

Aurkitu duzu bidea? Hala bada, laukiz lauki pasa dituzun hizkiak batu eta esatera zahar bat osatuko duzu:


Handitik txikira

Zazpi hosto hauek denak indigaztainoarenak dira. Ordena itzazu handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanaz eta txikienari 7.



Itzala

Margatu erlea eta arrosa eta aurkitu itzal zuzena.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

**AZPEITIKO PILOTARIEN
GIPIZKOAKO
HERRIARTEKO
ESKUZKO PILOTA
PARTIDAK**

Izarratiz
azpeitikoko pilotariak

ZUZENEAN
ERLO TELEBISTAN
eta UZTARRIA.EUSen



uztarr**ia** **erlo**

imh LANBIDE HEZIKETAKO
IKASTETXE INTEGRATUA
CENTRO INTEGRADO DE
FORMACIÓN PROFESIONAL

HEZIKETA
ZIKLOAK

**INFORMAZIO SAIO
PRESENTZIALAK**

MAIATZAK 12 eta 29

GOI ETA ERDI MAILAK

- DISEINUA
- PRODUKZIOA
- MEKATRONIKA/MANTENTZEA

EMAN IZENA!
www.imh.eus/zikloak



Fp
EUSKADI
ERAKOZLEKIA

Azkue auzoa, 1 Elgoibar (Gipuzkoa) • zikloak@imh.eus • 943-74 82 65

Aldapan gora



OIER ETXEBERRIA

Mendian korrika egitea modan dagoela diote. Ibili beharrea gailurrera igo eta ahalik azkarren jaiste. Hori bai, txukun ekipatuta, etiketaz jantzita, natur estetika partekatzeak ondo ematen baitu.

Udako larunbat eguerdian (zer esan elur lapratxak zuritzen badu), kexu gara jendearen emanaz, diosala lege dela azpimarratuz, adeitasunaren bidezidorretan. Zeinen arnasa garbia, zeinen bizi ohitura sanoak, zeinen maite ditudan gure bazterrek lanbrorik ez dagoenean. Neguko astegun euritsuetan, ez da kabitu ezinik izaten Ahargungo laiotz lokaztuan, kopetan argia daraman inorekin topo eginda ere. Noizbait Xoxoteko itzulia inor gurutzatu gabe egin duenak bota dezala lehen harria.

Horren guztiaren sorburuan, korrikalari kataluniar eta marka frantziar bat ditugu. Dohain berezidun kirolari karismatiko horrek, mendia eta kirola edo mendiko kirola berrasmatu ditu, malkarretan barna mugitzeko modurik eraginkorrena lasterka egitea omen dela eta. Bolumenari dagokionez, fenomeno hau ez zaio baloiaren zirkuari orpoetara ere iristen. Kurioso da zeinen futbolzale heldu gutxi hasten diren baloiari ostikoka, eta aldiz, zenbatek sinesten duten gai direla Killianek

besteko duintasunez Chamonixeko bailarak zeharkatzeko.

Boteprontoan, geroz eta jende gehiagok ariketa fisikoa egiteak, ingurumenarekin hartu-emanen gainera, pozgarria behar luke. Plastikoa arazo modernoei, ordea, ez die kontzientziazioaren argudio zaharkituek balio. Hiri eta landa kohesioan, turismo orotan bezala gertatzen da: goaz, gabiltza eta gatoz. Bitartean ate-sareek irekita darraite.

Trailarena (nazioarteko izenik gabekorik ez da) esponenzialki hazi den eta haziz doan olatua da; lasterketa kopurua, korrikalarien kantitatea, ibilbideen distantzia eta Zegama-Aizkorriko itxaron zerrenda. Halaber, neurri horretako hazkundeari nekez eusten zaio denboran zehar. Garagardoaren aparra moduan, azkar eta kutsakor hedatutako zaletasunak luze gabe apaltzen dira. Moda bada, ez da iraunkorra, eta iraunkorra bada, ez da moda. Espedizioen kasuan askotxo esatea bada ere, igotzen den gehiena jaitsi egiten da.

**GARAGARDOAREN
APARRA MODUAN,
AZKAR HEDATUTAKO
ZALETASUNAK LUZE
GABE APALTZEN DIRA**

Mendizaletasunaren militante historikoen jarreraz, honakoa da hipotesia: alde batetik, poztan dira zaletasunaren hedapena beraien lorpenentzat dutelako, eurek erein zutelako horrenbeste jenderengan loratu den hazia. Katedrak dio gaurko sasi-atletek ez dutela zilegitasunik tontorreko patxadaren tribunalean; fianbrerako patata tortilla eta zahatoko ardoaren argudio aspergarriz. Hala ere, norbere baitara biltzean, bestelako burutapenak dituzte. Gu iritsi ginen lehenengo tontoretara. Guk urratutako bidean dabilta besteak. Guri otu zaigu igande goizetako plana, eta beste guztiak akoplatu egin dira. Bidenabar, dekadentziaren aztarnarik ere nabari zaie, edozein ume moko plazatik San Inaziora bitartekoa 40 minutuan egiten ikusita. Sentipen tristea gailentzen zaie pentsatzean zergatik ez zituzten harrapatu trailaren modak, gerriak bigun eta zangoak bizkor zituzten garaian.

Mendiko haitzetan zehar jauzika gabiltzan ahuntzak garelakoa egoten gara, baina artaldera biltzeko joera dugu, beti baita errazagoa ardi izatea. Bakoitzak bere herrenarekin, elkarren abaroan, *bee* egitea. Artzantzan gauza jakina da ardi zaharrak zer egiten duen, zakurrarekin xaxatuz gero: korrika ihes egin, aldapan behera. ■■■

Bizi oso bat mostradore baten atzean

TESTUA: MAILO OJARZABAL

Atzera begira jarritakoan, norberaren edo beste edozeinen ibilbideari gainbegirada ematen hasitakoan, denborak pisua hartzen du. “Jesus! Egundoko tristura ematen dit”, bota du Arantxa Beobidek (Azpeitia, 1945), kontuak ateratzen hasi eta denda lekuz aldatu zuela ia hogeitau urte joan direla jabetu denean. Urteen joanaren abiadak bertigoa eragiten dio, baina baita halako poz bat ere, urte horietan zehar egindakoak eta bizitakoak gogoratzean.

Dendaria da Beobide, eta horrela izan da ia beti. “Bizi guztia mostradore atzean” darama. Duela 48 urte, 1973ko apirillean, ireki zuen Arantxa haur arropa denda, baina ordurako bazekien jendaurrean aritzea eta saltzaile lana zer ziren. Iturgin familiakoa, linterneria zeukan beren aitak Erdikalean, “Atanaxionekoa esaten zioten”; eta han, familiaren negozioan, egin zuen lana Beobidek oso gaztetatik.

Ez du garbi gogoratzen zergatik eman zuen duela ia mende erdi bere denda irekitzeko pausoa, baina “gustatzen” zitzaiolako erabaki zuen umeentzako arropa saltokia martxan jartzea.

“Josten ikasten” ibilia zen, eta jantzigintzaren arloak erakarri egiten zuen; bi alabaren ama zen ordurako –bi seme etorriko ziren ondoren–, eta “ilusioa” egiten zion proiektu hari eusteak. Negozioa martxan jartzerakoan Sagrario Gurrutxagak emandako bultzada eta laguntza nabarmendu nahi izan ditu Beobidek: “Bera [Gurrutxaga] Donostiako ume arropa denda batean ari zen lanean, eta herrian lan egitea gustatuko litzaokeela esanez etorri zitzaidan. Ideia asko eman zizkidan, asko lagundu zidan, erosketak egiterakoan eta. Izan ere, nik ez neukan kontu horietan ideia handirik”.

Gurrutxaga izan zen Beobidek dendan izan zuen lehen langilea. “Ez zen denbora askoan egon, baina asko lagundu zidan negozioaz ikasteko prozesuan”, berretsi du Arantxako jabeak. Marije Peña eta Mari Peñas etorriko ziren gero. Peñasek gaur egun ere dendan jarraitzen du

**BEZEROAK ERAKUSTEN
DIZU, ESKATZEN
DIZUTENAREN
ARABERA DAKIZU
NONDIK JO**

lanean, 40 urte inguru daramatza Beobiderekin. Bere ibilbidea ez ezik, ia mende erdiko bide horretan berarekin aritu direnak eta ondoan izan dituenak ez ditu inondik inora ahaztu nahi Beobidek. Ezta etxekoan laguntza ere: alaba Teresa da dendako erakuslehoak prestatzen dituenak, eta haren ekarpena ere gogora ekarri nahi izan du.

Jose Artetxe kalean ireki zuen Beobidek bere izena daraman denda eta kale horretan egon izan da beti saltokia, baina ez hasierako toki berean. Kalea erdibitzen duen errepedearen alde batean izan zuen lehen lokala, eta 2002tik gaur egungo kokapenean dago denda, kalearen bestaldean eta hasierako kokalekuaren aurrez aurre, ia. Jaioberriak zein 16 urte arteko haurrak eta gaztetxoak jantzeko arropak saltzen dituzte Arantxa dendan. Lehen, arropaz gain hainbat osagarri ere saltzen zituzten, sehaskak, kotxekapotak edota orgak, baina urteak dira horiek saltzeari utzi ziotela.

Nola aldatzen diren gauzak
Beobidek Arantxa ireki zuenean, umeen modako beste bi saltoki zeuden Azpeitian: Viuda de Orbegozonekoa plazan, eta Azurmendinekoa




Arantxa Beobide, dendako mostradorearen atzean.

Erdikalean. 48 urteotan, itxi eta ireki, denda dezente izan dira herrian Arantxaren arlo berekoak; aldi berean sei-zazpi izandako urteak ere izan direla gogoratu du Beobidek. Gaur egun, berriz, soilik haurrentzako jantziak saltzen dituzten bi saltoki daude.

Ia bost hamarkadaz eutsi dio negozioari Beobidek, eta, ezinbestean, aldaketa askoren lekuko eta parte izan da. Berak denda ireki zuen sasoiari, ohikoena zen herritarrek

herrian bertan erostea, bai behintzat haurrentzako jantziak. Gainera, kontsumo ereduak ere beste bat zela nabarmendu du Arantxa dendakoak. “Lehen, sasoi berri bakoitzean umeak goitik behera janzteko erosketak egiten zituen jendeak, beti. Orain, ez. Gaur egun, gehiago erosten da beharraren arabera, momentuan momentukoa. Lehen, sasoi bakoitza hasterako dena erosita izaten zuen jendeak. Ordukoa gehiegizkoa

eta dena izaten zen batzuetan, orain gutxiago kontsumitzen du jendeak. Zeharo aldatu dira gauzak”. Beharrak herriko saltokietan asetzea ere ez dago hain hedatua orain; Donostian saltoki handiak irekitzen hasi zirenean iritsi zen lehen joera aldaketa aipagarria. Azken urteetan, berriz, Internet bidezko erosketen gorakada “asko” nabarmendu dutela dio Beobidek, inguruko saltoki txiki gehien-gehienaren ildo beretik. “Erosteko era asko aldatu da



Arantxa dendaren lehen egoitza, kanpotik.

Internetekin eta horrek kalte handia egin dio herrietako merkataritzari”.

Modaren eta arroparen erabileraren joerak ere ez dira gutxi aldatu Arantxa denda ireki zenetik. Garai hartan, “igandetako arropak” izaten zituzten ume gehienek, astegunetakoak baino

dotoreagoak, igandeetarako edota jaiegunetarako gordetzen zirenak. Ohitura hori aspaldi “galdu” zen, ordea. Haur txikienen arropetan sexuaren araberako kolore banaketa ere –arrosa kolorekoak neskenentzat, urdinak mutilentzat– gaur egun “oso gutxi” mantentzen dela dio Beobidek, joera horri eusten

dioten bakarren batzuk badiren arren. “Koloreetan eta estiloetan aukera handiagoa dago orain, jantzi ‘modernitoagoak’ daude eta estilo klasikoa oso ezkutatuta dago, jaioberrietan oraindik ere polita gelditzen den arren. Jendeak praktikotasuna bilatzen du”, iritzi dio dendariak. Berari, berriz,



Beobide eta Mari Peñas, atzean.



Arantxa dendako lehen kontu-liburua.

bezeroen joeretara moldatzea dagokio: “Azkenean, bezeroak erakusten dizu, eskatzen dizutenaren arabera dakizu nondik jo”.

“Oraindik ez naiz erretiratu”

Hainbeste urte irauten ari den negozioan, belaunaldi bat baino gehiago janzteko parada izan du Beobidek. Umetan beren gurasoekin dendara joaten ziren asko gaur egun beren seme-alabentzako arropak erostera joaten zaizkio, eta hori “polita” dela nabarmendu du. Hala ere, gaur egun erostaile onenetakoak

“opariak erostera eta” joaten diren “amamak” dituela aipatu du. Azpeitikoak ez ezik, urte hauetan guztietan Azkoitiko “bezero onak” ere izan ditu Arantxa dendak. “Garai batean, Azkoitian ez zegoen gaur egun adina saltoki, eta joera handia zuten azkoitiarrek erosketak Azpeitian egiteko”, azaldu du.

Erretiroa hartzeko adin ofiziala aise gaingiduta, eta behin eta berriro eskertzen duen inguruko “laguntza” ahaztu gabe, lanean jarraitzen du Beobidek bere dendan. “Jubilazioaren zain” dagoela dio, baina baita “oraindik ez naiz

erretiratu” ere, irribarrez. Dendako jarduna uzteko presa handirik ere ez du, momentuz; dendak “bizia” ematen diola baito Beobidek, eta hori horrela den bitartean ez du uzteko asmorik. “Izan ere, badakit, seguru-seguru, hau lagatzen dudanean bajatu egingo naizela”, gaineratu du. Urteak “aidean” pasatu zaizkio Arantxa dendako jabeari, baina badaki laneko ibilbidearen azken urteetara iritsi dela. Ez daki Arantxa dendan lekukoa hartuko dion inor izango den, baina horren kezkarik ere ez du azaldu. ■■■

ARNasa Gara

Amasa Gara kanpeinak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen amasguneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

EGUNEROKOAN ZER?

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerririk dira amasguneak. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako amasa dira gure hizkuntzarentzat.



www.arnasagara.eus
maiatzaren 22tik maiazaren 14ra

Astero bideo bat eta ekimendua bat.

AZPEITIAK

bat gehiago



**BATU UZTARRIAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

Lore sortak edo zeozer...



PAOLA MOTO

Zergatik bateratzen ditugu loreak eta maitasuna? Bizi bat munduratzekoan amari egiten zaion oparia da loreen esanahi polita; horrela egiten dugu aurrera bizitza honetan ere, lorez inguratirik. Momentuak politago egiten dituzte loreek, ez dut ezezkorik esango, baina apaingarriak besterik ez dira, azken finean.

Batzuetan, harremanen katebegiak direla iruditzen zait. Lore sorta oparitu eta pixka baterako bikotekidearekin konplututa bezala gelditzen gara. Nolabaiteko itsutze efektua eragiten dute loreek zenbaitengan, opariaren edertasunak sortutako lilurak itsutuko balitu bezala, eta horri eutsiz, ematen du harremana kate soltaezin bilakatzen dutela.

San Valentín eguna (egun horren inguruan beste artikulu bat hurrengorako); erakuslehoak lorez, bihotzez, era eta forma guztietako bonboiz eta abarrez beteta... Oso erraza da herriko loradendara joan eta 30 euroren truke lore sorta bat erostea. Zaila, ordea, opariaren atzetik benetan dagoena ez estaltzea.

Aspaldiko ohituratzat dut, eta zaharkitua dagoela iruditzen zait. Amorrua diodala uste dut loreak oparitzeari, duen izaera erromantikogatik. Harremanen benetakotasuna eta oinarriak loreen edertasunekin eklipsatuta geratzen dira askotan. Loreak ez dira errudunak, estalkiak baizik.


Harremanek irauteko ez da lore sortarik behar. Maiteminduta bazaude, lore sorta ez den beste zerbaitekin harritu dezakezu ondokoa. Aitzakia hutsa iruditzen zait opari hori. Nabarmena da ez zaizkidala gehiegi gustatzen. Zergatik ez azaldu ondokoarengana guretzako baliagarria izan daitekeen beste edozerekin? Edo, besterik gabe, errutina goxo eta eder bat sortu bion gustuko ekintzekin? Zergatik ez egin afari eder bat, besarkada goxo bat eman, asteburu pasa eder bat elkarrekin... Neskek, emakumeok, ez ditugu behar loreak maitasun ikur gisa.

Txintxua Filmsen lanean, *Quebrantos* film laburrean zehazki, Ziortza Linaresi Euskadi Irratian egindako elkarrizketaren zatiak entzuten ditugu. Eraso sexistak jasandako emakumea da Linares, eta testigantza erreala kontatzen digu, lehen pertsona; hori entzuteak barruak mugitzen dizkit. Nekea, beldurra, amorrua, nazka ematen dit. Ziur nago gizon horrek ere lore sortak oparitu izan dituela, baina seguru maitasuna nekez goxatu izan duela.

Kontua ez da loreak oparitzea. Kontua da, loreak hazteko eta horiek bizirik irauteko, ureztatu egin behar direla. Argia eta epeltasuna behar dituztela. Musika eta goxotasuna. Guk bezalaxe.

"Gure begiek loreak eman arte" (Nogen). ■■■

MOMENTUAK POLITAGO EGITEN DITUZTE LOREEK, BAINA APAINGARRIAK BESTERIK EZ DIRA



"Urtero atzerriko esperientzia bat bermatzen dugu Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradu dualean"

Amaia Aizpuru, Urrestillan jaioa eta Azkoitian bizi dena, Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradu dualean irakasle eta ikertzailea da 2000. urteaz geroztik. Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko Marketin arloko koordinatzailea ere bada 2009tik.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu *hobby* edo zaletasunik? Enpresak zuzentzeak eta kudeatzeak ba al du etorkizunik gaur egun?

Enpresak gizartearen agente dinamizatzaileak dira: oparotasuna ekartzen dute lurraldeetara, garapen ekonomikoa eta soziala ere bai, lana sortzen dute... Erakunde publikoak eta pribatuak kudeatzeko pertsonak behar dira. Gizartea aldatzen doa, eta enpresek eta erakundeek eraldatu beharra dute erronka berriei aurre egiteko. Eraldaketaren oinarria enpresak eta erakundeak kudeatzen dituzten pertsonak dira; beraz, inoiz baino gehiago, kudeaketa arloan profil trebatuak beharrezkoak dira etorkizunera begira.

Zer profil eskatzen dituzte enpresek gaur egun zuzendaritzan eta kudeaketan lan egiteko?

Gaur egun, edozein profesionalak, baita zuzendaritza eta kudeaketa arloetan ere, bi kompetentzia mota garatu behar ditu. Alde batetik, kompetentzia teknikoak, lanbideari lotutako ezagutzak: marketina, finantzak, teknologiak, komunikazioa, datuen analisia, industria 4.0... Bestetik, enpresetan gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie *soft skills* edo zeharkako kompetentziei; hau da, pertsonari lotutako gaitasunei: arazoak ebazten jakiteari, taldeko lanari, lidergoari, autonomiari, erresilientziari, beste kulturarekin pertsonekin harremanak sustatzeari...

Testuinguru horretan, zer eskaintzen du dual ereduak?

Ikasteko era ezberdin bat; ikasleak lau urteko esperientzia izango du gradua bukatzean, eta horrek haren curriculum-a aberastuko du. Gure ikasleek unibertsitatean nahiz enpresan ikasten dute lehen mailatik laugarren mailara arte. Prozesu hori enpresako mentorearen eta fakultateko tutoreen artean gidatzen da, ikasleen garapena bermatuz, bai arlo teknikoan, bai arlo pertsonalean.



Amaia Aizpuru Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradu dualean irakasle da.

Nazioarteko esperientzia beharrezkoa iruditzen al zaizu?

Bai, nazioarteko esperientzia nabarmena izan beharko lukete Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradu duala ikasten duten ikasleek. Horretarako, ikasturte bakoitzean atzerriko esperientzia ezberdinak bermatzen ditugu: lehen mailan, Europara joaten dira gure ikasleak, Mondragon Korporazioko enpresak bisitatzeri; bigarren mailan, inter-campus erronka bat sustatzen dugu, atzerriko unibertsitateekin batera; hirugarren mailan, egonaldi luze bat egiten dute Asian edota Ameriketako herrialde batean, eta laugarren mailan, Gradu Bukarako Proiektua atzerriko enpresa batean garatzeko aukera dute seihileko osoan zehar.

Nola egokitzen da Mondragon Unibertsitatea enpresek eskatzen dituzten profil horietara?

Mondragon Unibertsitatearen enpresa talde baten barnean dagoen unibertsitatea da, eta horrek enpresengandik oso gertu egoteko aukera ematen digu. Gure eskaintza oso praktikoa da; izan ere, testuinguru guztiz errealean ikasten dute ikasleek, eta, aldi berean, enpresengandik gertu egoteak lehen eskuko informazioa edukitzeko aukera ematen digu, graduatuei etorkizunera begira behar duten formakuntza eskaini ahal izateko.



Udaberriko usainak

Udaberriarekin batera, lorez nahiz kolorez betetzen dira inguruetako zelaiak eta larreak. Udaberriko egun arrunt batean, Aitziber Salegi azpeitiarrak Oñatz eta Urrestilla inguruetan ateratako argazkiak dira honako hauek. Lore bakoitzak du bere berezitasuna.

Argazkiak eta testuak: **Aitziber Salegi.**

**MARGARITA**

Margarita loreek *Chrysanthemum macimum* dute izen zientifikoa. Bitxiloreak zelaietan eta taldean ikusi ohi diren moduan, margaritak –bitxiloreen familiakoak, baina horiek baino askoz handiagoak izan ohi diren loreak– bide ertzetan eta banaka ikus daitezke.

**ZAINGORRI LOREA**

More koloreko lore honek *Geranium rabrtainum* du izen zientifikoa. Hosto berdeak izaten ditu barrenean; ertzetan, aldiz, gorriak. Enborra ere gorria izan ohi da. Sendabelarraren multzoan koka daiteke zaingorri lorea, eta askotariko erabilerak ditu. Jende askok ukenduak egiteko erabiltzen du.

**ZAIN-BELAR LOREA**

Zain-belar loreak *Plantago laneolata* du izen zientifikoa. Lore berezia da, eta ez da oso ikusgarria: ez du petalorik eta marroi kolorekoa izaten da. Sendabelar moduan erabili ohi da lorea; ukenduak edo katarroarentzako edariak egiteko baliatu izan dute etxe askotan.



KALA

Kala loreak *Zantedeschia aethiopica* du izen zientifikoa. Petalo ondulatu bakarraz osaturiko lorea da, zuri kolorekoa. Elizak apaintzeko erabili ohi dituzte lore horiek.



LIHOA

Linum bienne da liho lorearen izen zientifikoa. Bide bazterretan ikusten diren urdin koloreko loreak dira.



MARRUBI LOREA

Marrubi fruituak ematen dituen loreak *Fragaria vesca* du izen zientifikoa. "Umetako oroitzapenak ekartzen dizkit gogora lore honek, aitarekin mendira joan eta ibilbidean zehar marrubitoak jaten genituen garaiko oroitzapenak", adierazi du Salegik.

**KUKU-BELARRA**

Kuku-belarrak *Aquilegia vulgaris* du izen zientifikoa. Izenak dioen bezala, udaberrian kukuaren kantuarekin batera loratzen da. Sendabelar erabilera ere badu, eta diuretiko da.

**INTSUSA LOREA**

Sambucus adoxaceae da irudiko lorearen izen zientifikoa. Euskal Herriko baserrietan eta etxeetan fede handia sortu izan duen landarea da. Gauza askotarako baliatu izan da, eta loreekin, enborreko azalarekin edo beste zenbat zatirekin ukenduak egiteko erabili izan da urte askotan zehar.

TXIKORI BELAR LOREA

Irudietako loreak *Taraxacum officinale* du izen zientifikoa. Sendabelar modura erabili izan da; Salegiren etxean, esaterako, infusioak egiteko baliatzen zuten. Nork ez dio umetan horrelako bati putz egin, eta haziak hegan ikusi? ■■■



SOKA LUZEAN



JANIRE ALKORTA

EPA, APA, IPA

Zer nahi dun edateko?
 -IPA bat.
 -Zer dun hori?
 -Garagardo mota bat.
 -Eta zer din berezia garagardo horrek?

Erantzuna ez jakitean ohartu nintzen zer gutxi dakidan garagardoaren inguruko kimikari buruz.

Denok dakizuen bezala, garagardoa garagarrez eginiko edari alkoholodun bat da, eta alkohola, hartxidura (fermentazioa) prozesu baten ondorioz sortzen da. Fermentazioa? Fermentazioa prozesu biokimiko bat da, non substantzia organiko bat beste batean bilakatzen den energia lortzeko. Sortutako produktuaren arabera, fermentazio mota desberdinak daude, baina ezagunenetarikoa fermentazio laktikoa eta alkoholikoa dira. Bi fermentazio horietan, glukosa molekulak (azukrea) baldintza anaerobikoetan (oxigenorik gabe) degradatzen dira, azido laktikoa eta etanola sortuz, hurrenez hurren.

Garagardoak lau osagai magiko izaten ditu: garagarra, ura, legamia eta lupulua. Garagarra glukosa iturria da. Beraz, ezer egin aurretik, garagarra uretan jarrita, glukosa ateratzen da aleetatik. Legamia, bizirik dagoen mikroorganismoa, arduratzen da glukosa molekulak alkohol

bilakatzeaz. Eta, azkenik, lupulua. Marihuanaren familiako landare horren lorean aurkitzen den lupulina hautsak usaina eta mingostasuna ematen dizkio garagardoari. Horrez gain, egonkortzaile ezaugarriak ditu. Lau osagai horien kantitateekin eta fisika--kimikarekin jolastuz, garagardo desberdinak ekoizten dira: IPA, APA, Pilsner, German Lager, Stout eta burura etortzen zaizkizun garagardo mota horiek guztiak.

Baina ea, zer da hain modan dagoen IPA? IPAk -Indian Pale Ale-, izenak ondo adierazten duen moduan, pale ale motako garagardoak dira. Alek, glukosaren fermentazioa goiko partean eta giro tenperaturan gertatzen dela adierazten du (garagardoak nagusiki bi taldetan banatzen dira, Ale eta Lager), eta palek garagardo argia dela. Eta Indian? Dirudienez, britainiar jatorria duten garagardo horiek Indiara bidaltzeko asmoarekin sortu zituzten lehen aldiz XVIII. mendean. Indiara iritsi bitarteko sei hilabeteko bidaian garagardoek ondo iraun zezaten, garai hartako garagardoei baino alkohol eta lupulu kantitate handiagoak gehitzen zizkieten.

Eta beste garagardoaren inguruko istorioak eta ezaugarriak? Oinarrizko kontzeptuak jakinik, has gaitzen zer edaten dugun ulertzen! ■■■

BOTEPRONTOAN



FELIPE MURILLO

"Gol en el campo..."

Paz en la tierra" zioen La Pollaren kantak, eta egunotan, ez dakit denok futbolzale bihurtu garen edo zerbait ospatzeko edozein aitzakia zaigun zilegi. Gauza da pasio horrek defentsak baxu nituela harrapatu nauela, eta hori, "pasioa da hemen exijitzea zilegi den gutxieneko hori" esaldia tatuatuko nukeela hain luzea izan ez balitz.

Pasiozale naiz. Eta bai, Errege Kopako finalaren inguruan mugitu denaz ari naiz. Kontua ez da ez dudala erreakzioa ulertzen. Kontua da moduak nekatzen nauela, hegemonikotik egiten diren ohiko irakurketekin gertatzen zaidan moduan. Futbola erdigune bihurtzen da askotan, eta bere zilborrari so jartzen da begira diezaioten. Bere izenean justifikatzen ditugu bestela barkatuko ez genituzkeen hainbat jarrera eta ekintza. Bestela ezin uler nezake nola iristen diren autobus sinbolikoak udalen zein eskolen gerizpean, nola pandemiaren aurrean hartutako edozein neurri apurtzea balizko zaigun, nola zabaldu den partida horren garaipenarekin Gipuzkoa osoak irabazi dugula, beste errealiterik ez balego moduan.

Kontu! Ez naiz futbolaren negazionista bat, baina beste gabezia batzuen txerto bilakatu ez ote zaigun teorizatzen nabil egunotan. ■■■

TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!




Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com



IZARRAITZ

Lanbide Heziketa

Guztiona, guztiontzat!



Ziklo guztiak
euskarara hutsen

- **ELEANITZA:** ziklo hauetan modulu batzuk **ingelesez** egiteko aukara.

COVID-19ak
hazteko protokolo
eraberrak: buruko
testak, termok
eta abarretan

ATE IREKIAK

Maiatzak 27

9:00 - 19:00

Erdi maila:

- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIO TEKNIKARIA
- AROTZERIA ETA ALTZARIGINTZA

Goi maila:

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA *
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- GIZARTERATZEA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA **BEHIN!**

Eskaintza partziala:

- DISEINUA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

www.izarraitz.eus

CIFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHFI
Altamira auzoa 2/g. 20720 Azkoitia (Gipuzkoa)
Tel. 943 85 21 74 - bulogoa@izarraitz.eus

